



# Herri txikiak aurrera begira: energia burujabetzarako ideiak, ekimenak eta balioak



**Ira. 22 2023**

**Kod. G25-23**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2023

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 22 2023

**Kokalekua**

Zeraingo eliza

**Hizkuntzak**

Euskara Gaztelera

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**



Fundación  
BBVA



## Azalpena

Energiaren burujabetza erronka zentrala da gure gizarteetan, XXI. mendeko larrialdi klimatikoari aurre egiteko trantsizio ekologiko eta energetikoaren markoan. Herri txikiei ere zuzenean eragiten dien gaia da hau, baina herri txikiek badituzte zenbait ezaugarri bereziki kontuan hartu beharrekoak: landa eremuan egotea, ingurunearekin harreman ezberdina izatea, kultura landatarra, baso eremuak edukitzea, mugikortasunerako irtenbide kolektiboen mugak, biztanleria talde txikiak, etxebizitzaren nolakotasuna, auzolaneko kultura... Askok eta oso modu ezberdinetakoak dira energiaren erronkei erantzuteko herri txikietan kontuan hartu beharreko ezaugarriak eta baldintzak.

Uda Ikastaro honetan, aurreko urteetako bideari jarraituz, herri txikien etorkizunari begira jarriko gara, baina energia arloan burujabe izateko erronka handiari berariaz erreparatuz. Begirada horretan, ordea, alde inmateriala (kultura, balioak, auzolana...) bereziki azpimarratu nahi da, irtenbide teknikoak eta materialei ez ezik, komunitateen baitako balio eta kulturei trantsizio energetikorako duten ezinbesteko papera aitortuz. Horretarako, ikastaro honetan herri txikietako balio eta ezagutzari buruzko hausnarketak energiari buruzko ezagutza konkretuekin uztartuko dira, eta Euskal Herriko herri txikietako esperientzia aurreratu eta eredugarriak aurkeztuko dira aurrera begirako eztabaida eta gogoeta kolektiboan sakontzeko.

## Helburuak

Landa eremuko herri txikiak energian burujabe izateko baldintza eta aukerez hausnartzea balioen eta kulturaren ikuspegitik.

Energia arloan esperientzia eta ekimen aurreratu-eredugarriak ezagutzea.

Herri txikien etorkizuneko energia eredu eta moduez eztabaidatzea.

## Antolakuntza



## Lankidetzak



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

# Programa

**2023-09-22**

09:00 - 09:15	Erregistroa / Registro
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Ion Muñoa Errasti</b>   Deustuko Unibertsitatea - ikastaroaren zuzendaria
09:25 - 10:30	“Energia trantsiziorako erronkak Euskal Herrian: EVE” <b>Iñigo Ansola Kareaga</b>   EVE - Zuzendaria
10:30 - 11:30	“Energia burujabetzari auzolaneko kulturatik begira” <b>José Antonio Rekondo Sanz</b>   Oreki Fundazioa - Historialaria
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 12:45	“Energia komunitateak: Aukerak, erronkak, adibideak eta kontraesanak” <b>Asier Larretxea Barja</b>   Trantsizio energetikoko aholkularia
12:45 - 13:30	“Energia arloan esperientzia aurreratu eta eredugarriak”  Goiener: Aitzindaritzatik bide egiten <b>Leire Ugarte Diaz</b>   Goiener  Ekiola: Eredu publiko-pribatutik eguzkia energia sustatzen <b>Amagoia Barandiaran</b>   Ekiola  Zeraingo energia komunitatea. Hasi berri den proiektua <b>Andoni Alustiza Etxaluze</b>   ZERAINLAB. Zeraingo energia komunitatearen proiektua
13:30 - 14:00	Eztabaida irekia
14:00 - 14:05	Itxiera / Cierre

## Zuzendaritza



### **Ion Muñoa Errasti**

Deustuko Unibertsitatea

---

Ion Muñoa Errasti Deustuko Unibertsitateko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko irakasle-ikertzailea da. Giza Zientzietan eta Komunikazioan lizentziatua eta Gizarte Zientzietan doktorea da. Deustuko Unibertsitateko Komunikazio graduko irakaslea eta Komunikazio ikertaldeko kidea da. Intereseko gai nagusiak Komunikazio Publikoa, Iritzi Publikoa eta Komunikazioaren eraldaketa dira.

## Irakasleak



### **Andoni Alustiza Etxaluze**

Herri txikiko eragilea

---



### **Iñigo Ansola Kareaga**

---

Iñigo Ansola tiene estudios de ingeniería técnica industrial. Desde 2016 Consejero-Director General del EVE-Ente Vasco de la Energía, Sociedad perteneciente al Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco. Hasta 2016 además de Presidente de la Mancomunidad de Lea-Artibai, fue Director de Aguas y Director de infraestructuras ambientales de la Diputación Foral de Bizkaia y posteriormente, Director General de URA -Agencia Vasca del Agua del Gobierno Vasco. Desde 2016, desarrolla su trabajo en el Grupo EVE, en las áreas de hidrocarburos, recursos geológicos y mineros, eficiencia energética, energías renovables, estudios, planificación e internacional, formando parte de Consejos de Administración de las sociedades: EVE, CADEM, BBE, BBG, SOCIEDAD DE HIDROCARBUROS DE EUSKADI, MICRONATUR, BIMEP, IBIL, ENAGAS TRANSPORTE DEL NORTE, ITSAS GAS, CIC ENERGIGUNE, BIOARTIGAS, CLUSTER DE LA ENERGÍA, GECASA, C.H. HARANA-KONTRASTA, TELUR y BEC SOLAR.



### **Amagoia Barandiaran**

---





**José Antonio Rekondo Sanz**

Oreki Fundazioa

---



**Leire Ugarte Diaz**

GoiEner

---

# Matrikula prezioak

<b>AURREZ AURRE</b>	<b>2023-05-31 ARTE</b>	<b>2023-09-22 ARTE</b>
<a href="#">Elkar</a>	15,00 EUR	-
Orokorra	-	15,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	-	15,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	-	15,00 EUR
<a href="#">Donostia Kultura</a>	-	15,00 EUR
<b>INVITADOS</b>	-	0 EUR

<b>ONLINE ZUZENEAN</b>	<b>2023-05-31 ARTE</b>	<b>2023-09-22 ARTE</b>
<a href="#">Donostia Kultura</a>	15,00 EUR	-
Orokorra	-	15,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	-	15,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	-	15,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	-	15,00 EUR
<b>INVITADOS</b>	-	0 EUR

# **Kokalekua**

## **Zeraingo eliza**

Zerain Núcleo Gunea, 15, 20214 Zerain, Gipuzkoa

Gipuzkoa